



Zuzzia

HARTRESIA APURTIUZ, BIDEA ZABALDUZ

5. Zenbakia.

2022ko urtarrila.

BERRIAK



2022ko abenduaren 6a, Durango

KONSTITUZIOAREN AURREAN EUSKAL HERRI LANGILEAK APURKETA!

Euskal Herria nazio gisa bi estaturen menpe dagoen bitartean, estatu hauek burutzen duten zapalketa betikotu eta zilegitzeko darabilten Konstituzioaren aurkako mobilizazioa burutu zuen JARKI antolakunde iraultzaileak abenduaren 6an, Durangoko kaleetan. Horretarako, mobilizaziora deitu eta Konstituzioaren izaera salatzen lanketa komunikatiboa burutu zuen Euskal Herriko leku ezberdinetan. Horrekin batera, aipagarria da abenduaren 4an Donostiako JARKI antolakunde iraultzaileko militanteek konstitu-

zioaren inguruan aurrera eramandako hitzaldiak. Abenduaren 6an bertan, 300 pertsona manifestatu ziren Durangoko kaleetan zehar, Covid-19ren aitzakiapean garatutako ez-ohiko Durangoko disko eta liburu azokaren testuinguruan. Manifestazioaren amaierako ekitaldian, Euskal Herriko langile klaseak pairatzen dituen miseriak, etxegabeteak, kaleratzeak edota kolore ezberdinetako txakurren jazarpena nahiz hauen inpunitatea, Konstituzioetan edota hauetan oinarritutako legeetan babestuta daude-

la argi utzi zuen antolakundearen hizlariak. Bai Frantziako, bai Espainiako konstituzioak, Espainiako eta Frantziako estatu burgesen oinarri gisa kokatu eta burgesiaren jabetza eta nagusitasuna bermatzeko tresnak direla argi utzi zuen, hauek indarrean dauden bitartean Euskal Herri Langileak inolako normalizaziorik eta bakerik ezagutuko ez duela adieraztearekin batera. Ataka horretan, estatu zapaltzaileen aurrean Euskal Herri Langileak duen aterabide bakarra euskal estatu independente eta sozialista

baten erdiespena dela argi utzi zuen antolakunde iraultzaileak, horretarako antolatzea eta mobilizatzea beharrezko baldintza gisa kokatu zituelarik. Era berean,

goizean JARKI antolakunde iraultzailearen manifestazioan parte hartutako asko Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatutako manifestaziora batu ziren arratsaldean,

antolakunde iraultzaileak honetan parte hartzeko deialdiarekin bat eginez.

AMNISTIAREN ALDEKO EKIMENAK GABONETAN

Bultza Herri Ekimenak, abenduaren 23a, eta Etxarri zein Deustuko JARDUN-eko kideek abenduaren 30a baliatu zuten Gabonetan, Euskal Herriaren askapenaren alde aritzearen ondorioz ilunpean, ziegetan aurkitzen diren gudariak bizi duten errealitatea ikusarazi eta, aldi berean, amnistiaren aldarria kalera ateratzeko. Horretarako, Etxarriren eta Deusturen kasuan kontzentrazioa burutu zuten eta Bultza Herri Ekimenak, berriz, amnistiaren aldeko kalejira Bilboko Indautxu kaleetatik zehar. Ekitaldiaren amaieran erreprezioaren aurka eta amnistiaren alde antolatzeko deia luzatu zuten.



ERASOEK DARRAITE LEITZAN

Gudari Egunaren ostean, Leitzako JARDUN-eko kideek poliziaren aldetik hainbat jarraipen eta mehatxu jasan eta gero, Leitzako JARDUN-eko kideek urtero herriko plazan kokatzen duten Olentzerok eta Maimurrek pairatutako erasoaren salaketa burutu dute. Izan ere, abenduaren 25ean, Olentzerok eta Maimurrek zeramatzen amnistiaren aldeko zapiak eraman zituzten zenbaitek eta urtarrilaren 6an, Olentzeroren burua kolpatu zuten, hau zulatu eta txikitu arte. JARDUN-eko kideek Leitzako kuarteleko pikoloei egotzi diete eraso hauen ardura. Pairatutako erasoak Olentzerok Euskal Herriaren identitatearen ikur bezala daukan garrantziaren baitan kokatu dute. Eta euskaldunon identitateaz harago, espetxeetan preso aurkitzen diren borrokariaren aurka burututako erasotzat jo dute, bahituta daudenak herriarengandik duten babes ezabatzeko asmoz burututako erasoak dela esanez.



HOLOKAUSTOKO BIKTIMEN NAZIOARTEKO EGUNA

Gernikako JARDUN eta Askatasun Haizea Herri Ekimenak Holokaustoaren biktimak oroitzeko nazioarteko egunean lanketa komunikatiboa burutu zuten, Gernikako kaleetan barrena. Izan ere, hauen hitzetan, nazismoaren eta faxis-

moaren aurka borrokatu zuten burkideentzako eta bizitza eman zutenentzako zuzendutako lanke-ta da. Kontzentrazio eremueta hildako euskaldun kopurua berrehundik gora izan zela gogora ekartzearekin, eta esparru horie-

tan erailak izan ziren eskualdeko pertsonak aipatzearekin batera, euren oroimenaren alde egin dezakegun bakarra haien borroka tinko jarraitzea dela azpimarratu zuten.

OIER, GUDARI, GOGOAN ZAITUGU!

Oier Gomez 2017ko urtarrilaren 26an zendu zen Baionako erietxean, 35 urte zituela. Beste askok bezala, Euskal Herriaren aldeko borrokan aritu zen bere bizitza guztian zehar, borroka eta konpromisoaren ondorioz espetxeratua izan zelarik. 2012an espetxeratuta zegoela gaitz bat aurkitu zioten eta 2017an pairatzen zuen gaixotasun horren

ondorioz aske utzi behar izan zuten. Hori zela eta, bere jaioterritik hainbat kilometrora hiltzera kondenatu zuen Oier. Gauzak horrela, Oierren borroka gogora ekarri eta berak bere bizitza guztian eutsitako duintasuna, eta Euskal Herriaren alde aritu izatearren gudaria dela argi uzteko, Gasteizko JARDUN koordinadoran parametro anti-

errepresiboetan antolatzen ari diren kideek kontzentrazioa eta kalejira burutu zituzten, Gasteizko Alde Zaharreko kaleetatik zehar. Bukatzeko, Sumendi espazioan bazkaria antolatu zuten presoan aldeko dirua biltzeko asmoarekin. Jarraian, Oierren lagunek heriotzaren hirugarren urteurrenaren harira prestatu eta kantatutako abestia dugu:

*Hiru urte jada joan dira baina zurekin oroitzen gara, alajaina!
Bizi izandakoak elkarrekin,
nahiz denak publiko ezin egin...
Ze giro eder!*

*Zu oroitzeko bazterrik bazter,
bertso hauek doaz zuretzat, Oier!*

*Gazte denboran zenbat mobida...
Ongi etorri ume Euskal Herrira!
ETTen kontra greba Gasteizen
bide mozketak Corte Ingles-en
Arriagan ere:
estanean ahateen pare
bustitzeko prest presoan alde!*

*Espetxe martxak, mani, kontzentrak
ametsekin betetzeko paretak,
pintadak egin eta tabernara
atera trago bat kamarada,
Kutxin, Lesakan....
priba eskuan sugea pegatan,
zenbat parranda hanka banatan!*

*Argala ta Che, gure historia,
mendizalea ta kirolaria...
espetxeratua hiru aldiz
beti kementsu begiak diz-diz,
zure neurrira:
bizitza, borroka, sokatira:
pauzu guztiak eman behar dira!*

*Konpromezutik konpromezura
barne suak piztutako ardura
engaiatuta herri borrokan
kalean edo kartzelan izan
zure jarrerak
utzi egin du gure historiarentzat
duintasun istorio bat!*

*Urtarrilaren hogeita seian
argi izpi bat ostendu zen hodeian,
tristatu ginen, normala aizu!
Baina begira, hemen gauzkazu:
denok batera,
kanta dezagun betiko antzera
lepoan hartu ta segi aurrera!*



KLASE FEMINISMOA LANDU BEHARREKO ESPARRUA

Euskal Emakume Langilea Euskal Herri Langilearen parte den heinean, esplotazio eta zapalkuntza egoera partekatzen ditu honekin. Hala ere, egoera horren baitan sexu-genero zapalkuntza espezifikoak pairatzen duen estratua osatzen dute emakume langileek, sexu biologikoan oinarritutako genero rolen bitartez, emakumeen eta gizonen arteko hierarkia edo botere-harremana birproduzitzen baitu kapitalak. Ildo horretatik, emakume langileari lan birproduktiboa bere gain hartzera behartzen duten genero rol zehatzak esleitzen zaizkio: zaintzailea, arduratsua, sentikorra...

Era horretan, emakume langilearen esku geratzen dira langile klaseko kide guztientzat oinarritzko biziraupenerako nahitaezkoak diren zaintza jarduerak, bai lan indarra salduta produkzioan zuzenean parte hartu behar dutenena, eta baita produkzioan parte hartu ez arren langile klasearen parte diren kideena ere, bazkaria sukaldatzen hasi eta umeen heziketaraino. Emakume langileak bete beharreko paper birproduktiboa baina ez da zaintza lan horietara mugatzen. Izan ere, bere ugaltze gaitasunaren bidez etorkizuneko langile klasea osatuko duten haurrak erditu ditzake.

Gauzak horrela, emakume langileak funtsezko papera betetzen du kapitalismoaren baitan. Izan ere, bera da langile klase osoa mantentzeko beharrezkoak diren eguneroko zereginen arduratzen dena eta, horrekin batera, langile klasearen, hots, esplotatzeko klasearen jarraipena berma dezakeena ezaugarri biologikoengatik. Hori dela eta, kapitalaren interesen baitan sartzen da emakume langilea azpiratuta mantentzea eta egoera hori betikotzeko asmoz, behin eta berriro birproduzitzen ditu genero rola, emakume eta gizonen arteko botere-harremanei bide eginez.

Hortaz, argi dago emakume langilearen problematikak klase izaera duela, sexu-genero zapalkuntza klase gatazka baitan ematen baita eta, beraz, ez da berdina emakume burgesek eta emakume langileek pairatzen duten zapalkuntza. Afera honek sexuarengatik emakume burgesei eragiten badie ere, egiaz, emakume langilea eta burgesa elkarrekin kontraesanean dauden bi klase sozialen parte dira. Bata klase menperatzailearen parte da eta bestea, berriz, menperatuarena, emakume burgesaren interesak bat datozelarik klase menperatzailearenekin, azken honek langileria zapaltzen eta esplotatzen dituen bitartean.

Azken finean, emakume langilearen zapalkuntzaren arrazoiak egiturazkoak direnez gero, honi soilik klase parametroetan erantzun diezaiokegu, bakarrik klase gatazkaekin amaituta lortuko baitugu emakume langileon zapalkuntza forma guztiak gainditzea.

“epe hurbilean halabeharrez edo lehentasunez jorratu beharreko borroka gisa kokatu koordinadorak.”

Bide horretan, Euskal Herri Langilearen Alternatibak zapalkuntza espezifiko honi aurre egiteko marko propioak garatu beharra dauka, Euskal Herri Langilearen interesei erantzungo dietenak eta, aldi berean, emakume langilearen auzia klase ikuspuntutik landuko dutenak, Alternatiba Iraultzailearen strategiaren eta ildoaren pean aritzearekin batera. Bestela esanda, klase feminismoaren aldeko borroka marko propio gisa garatuko duen antolakunde baten beharra dago estrategia edo alternatiba iraultzailearen baitan.

Egungo testuinguruan, gainera, are beharrezkoagoa suertatzen da horrelako tresnak sortzea, emakume burgesaren eskutik joatea sustatzen duen feminismo burgesaren ofentsiba eta egungo hedabide zein instituzio ezberdinen eskutik hau jasotzen ari den babesa ikusita, Euskal Herriko eskuinak sexu-genero afera bere egin duen punturaino. Horren eraginez, problematika hau Euskal Herri Langilearen askapen borrokaren baitan maila estrategikoan kokatzeaz harago, epe hurbilean halabeharrez edo lehentasunez jorratu beharreko borroka gisa kokatu koordinadorak.

Hori dela eta, Alternatiba Iraultzaileko emakume langileok antolatze markoak eratzen abiarazi dihardugu, alternatiba iraultzailearen parte eta klase feminismoaren erreferentia izan behar den antolakundea sortzeko bidean. Ildo horretatik, honen osaketarako eztabaida prozesuan murgilduta murgilduta gaude une honetan. Era berean, afera honen inguruko ezagutzan sakontzeko, eztabaidatzeko eta kritikotasuna sustatzeko klase feminismoaren inguruko formakuntzari ere ekin diogu. Hau guztia aurrera ateratzea ezinezkoa izango litzateke baina emakume langile ezberdinek euren ekarpena egin ezean eta, hori horrela, kontaktu errondarekin ere bagabiltza, ekimen hau aurkeztuta emakume langileoi sartzeko eta egituratzeko markoak eskaintzeko. Ildo horretatik, antolakuntzarako deia egiten diegu Euskal Herriko emakume langile ezberdinei, ekimen honen parte izateko gonbita luzatzearekin batera.

JAZARPENAREN AURREAN ANTOLATZEKO BEHARRA



Klaseen arteko gatazkan ez dago klase zapaltzaileen eta zapalduen arteko adostasun posiblearik. Horrela, klase gizartea mantentzeko, errepresioa dominazio forma hau sostengatzeko ezinbesteko elementu bilakatzen da klase zapaltzailearentzat. Azken honek estatuaren mekanismoak eta hauek osaturiko instituzioak baliatzen ditu bere nagusitasuna bermatzeko, biolentzien monopolioaren bitartez. Era horretan, jazarpena, klase zapaldua azpiratuta mantentzeko tresna izateaz gain, hau neutralizatu eta aldaketarik ez emateko halabeharrezko tresna bihurtzen da. Halaber, klase zapaltzaileak instituzioetatik eratorritako zilegitasuna baliatuz eta bere erregimenak gizartean duen eragina baliatuz, bere biolentzia ematen du ordainetan, estatu eta kapitalaren aurkako edozelako dinamika biolentotzat jo eta kriminalizatzen dituen bitartean.

Gauzak horrela, Euskal Herriak bere historian zehar pairatu duen errepresioak forma ezberdinak izan ditu, bai momentu historiko bakoitzeko ekoizpen moduaren arabera, bai mugimendu iraultzaileak sistemarentzako suposaturiko mehatxu eta gizarteko baldintza sozial zein politikoen arabera. Hori dela eta, frankismo garaian izaera militar eta polizialeko jazarpena nagusi izan zen bitartean, edozelako disidentzia politikoen jazarpena zuzeneko errepresioaren bitartez burutzen zen, biolentzia baliatuz edozein motatako protestak edo

agerraldiak deuseztatzeko, atxiloketak burutuz. Tortura, informazioa lortzeko armaz harago, beldurra edota beldur giroa sortzeko ere baliatu zuten. Izan ere, militante politikoentzat edo desadostasuna adierazten zuen elementu ororentzat, estatuaren aurka joan eta honen atzaparretan eroriz gero paira zezakeenaren abisu gisa balio izan zuen honek. Espetxealdiak, exekuzioak eta heriotza egunerokotasuneko ogia izan ziren Euskal Herrian.

Gerora, ustezko erregimen demokratikoaren izenpean, aurretiaz baliatutako jazarpenaren forma aldatuz joan zen. Hala, estatuak zuzeneko jazarpena baliatzen jarraitu zuen arren, zeharkako formak indartzen hasi ziren Euskal Herriko mugimendu iraultzailearen aurka. Nahiz eta jazarpen polizial eta militarra bere horretan mantendu, izaera judicial eta administratiboko jazarpenarekin konbinatu zen. Gainera, estatuak gizartearen elementu ezberdinak baliatu zituzten, besteak beste, familia, hezkuntza, presio soziala... aurrera zeramaten zapalkuntza zilegitzeko orden soziala mantentzen zuen demokraziaren izenean. Horrela, denon erakusgarri ei den orden sozial horren aurka zihoan edozelako borroka biolentotzat jotzen zuen estatuak, hauek zilegitzea deuseztatu nahian. Horren eraginez, gizartearen tentsionamendua eta muturreko polarizazioa areagotzeaz gain, egoeraren eta izaera arbitrarioko neurrien aurreko gizartearen oztantasuna edota aldeketasuna lortzen da, jazarriak

diren sektoreen aurkako errepresioa areagotuz, zurituz edota jazarritako sektore hauetan terrorearen sentsazioa errotuz.

Horrenbestez, argi izan behar dugu errepresioaren prezioa altua izan dela Euskal Herriarentzat bere askapen borrokan zehar, oraindik ere Espainiako eta Frantziako estatuetako kartzelak preso politikoz beteta daudelarik. Hori dela eta, injustizia egoerak dirauen bitartean, honen aurka aritzea beharrezkoa suertatzen da. Euskal Herri Langilea zapaldua den bitartean, burgesia eta sistema kapitalistaren aurka borrokatzeko beharrea egongo da, prozesu horretan errepresioa, bere formak direnak direlarik ere, etengabekoa izango delarik. Gauzak horrela, egungo Euskal Herriko tesitura politikoan, jazarpen poliziala beste momentu historiko batzuetan bezain antzemangarria ez den arren, horrek ez du esan nahi estatuak hau aurrera eramateko prestutasunik ez duenik.

Beldurra bilakatu da burgesiaren armarik eraginkorrena, Covid-19ren ondorioz gaur egun bizi dugun egoerak agerian utzi duen bezala. Izan ere, burgesiak pandemiak sortutako egoera baliatu du komunikabide eta instituzioen bitartez beldurra sortu eta izuaren kulturaren sakontzeko. Eskubide sozial eta demokratikoak murrizten zituzten bitartean eta enpresek kapitala metatzen jarraitzen zuten bitartean, langileen arteko arrakalak eta norgehiagoka sustatuz, honen estratu bat egoeraren zuzeneko erantzule gisa salduz. Horrela, gainera, estatuak euren indar errepresiboek inpunitate osoa edukitzen jarraitzea bermatu dute, edozelako disidentzia edota protesta deuseztatzeko zilegitasuna eta tresnen eraginkortasuna handitzearekin batera. Tamalez, asko dira azken bi urteetan Euskal Herrian bizi izan ditugun horren adibideak, burgesiak errepresioaren bakea ulertzen baitu soilik, langile klasea jazartzeaz harago, sistema berri bat edo prozesu iraultzailea abiarazi nahi duen edozein mugimendu izango direlarik, bereziki, euren jazarpenaren jomuga, bere nagusitasuna auzitan jartzen duten edozelako antolakunde zein norbanakoen aurka joz.

Guzti honek agerian uzten du antolakunde erreferentzial baten hutsunea maila antierrepresiboan, Euskal Herriari dagokionez. Izan ere, era isolatu edo partzalean jarduten duten errepresioaren aurkako antolakundeei edo dinamikei ezinezkoa zaie, erantzun puntualetatik harago, inongo estrategiarik mahaigaineratzea, erakunde hauek etengabeko erantzunera mugatzera eramaten ditun bitartean. Horregatik, beharrezkoa zaigu burgesiak burutzen dituen oldarraldiei era bateratu eta eraginkorrean erantzun eta aurre egitea. Gauzak horrela, JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatiba jazarpenari aurre egiteko tresnez hornitzeko lehenengo urratsak ematen ari da, izaera

antierrepresiboko antolakunde sektorial bat eratzerako bidean. Izan ere, Euskal Herriak beharrezkoa duen antolakunde antierrepresiboak izaera integraleko proiektuaren baitan antolatuta egon beharra dauka, ezinezkoa izango baitzaigu bestela errepresioaren aurkako inolako estrategia eraginkorrik diseinatzea.

Errepresioa, Euskal Herri Langileak pairatzen duen gainontzeko zapalkuntza guztiak bezala, sistema kapitalistatik eratorria baita eta hau gainditzera bidean beharrezkoa da kapitalismoak aurrera daramatzen zapalkuntza guztiak borrokatuko dituen izaera integraleko proiektu baten baitan antolatzea, honela lortuko baitugu soilik kapitalismoa suntsitu eta Euskal Herriak pairatzen dituen zapalkuntza guztiak gainditzera. Hori horrela, sortu beharreko antolakunde antierrepresiboak, Euskal Herri Langilearen kontra egunerokotasunean eman daitezkeen kolpe antierrepresiboak erantzuteaz gain, errepresioaren beraren izatea nahiz helburuak salatu eta agerian utzi behar ditu Euskal Herri Langilearen begietan, azken honen kontzientziaziorako bidean. Hori dela eta, errepresioak momentu konkretu bakoitzean duen izaera aztertu eta honen aurrean beharrezkoak diren tresnak eta planteamenduak plazaratu beharko ditu.

Prozesu iraultzailea beharrezkoa den bitartean, Euskal Herri Langileak borrokan dirauen bitartean, jazarpenaren eskutik honen kausara eta muinera jo beharra badago ere, honek ondorioak ere eragiten ditu. Horrela, zapalketa egoerak dirauen artean, amnistia osoaren erdiespena beti izango da mugimendu iraultzailearen helburu nagusienetako bat, ezinezkoa izango baita estatu sozialista eta independentea eraikitzea, honen alde dena eman duten eta horregatik jarriak izan diren militanterik gabe. Hala ere, amnistiak preso, errefuxiatu eta iheslarien askapenaz gain, hauek borrokara eramandako arrazoen gairak eta jazarpenak burutu duten pertsonak herri justiziaren esku gelditzea ekarri behar du. Gauzak horrela, JARDUN Koordinadorak antolakunde antierrepresiboak martxan jartzeko lehen hazia erein du eta lan militanteari esker, antolakunde honek aurrera egiteko urrats handiak egiten ari dira. Lehenengo urratsak ematen ari dira, baina honek aurrera egiteko beharrezkoa da Euskal Herri Langile osoaren parte hartzea. JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatiba gorpuzterako bidean ezinbestekoa izango zaigulako Espainiako eta Frantziako estatuak eta burgesiak abiaraziko dituzten kolpe errepresiboak aurre egitea.

Euskal Herri aske eta sozialista baten bidean antolatu gaitzen!

JARDUN dezagun!

BORROKEN ARTEKO ELKARLOTURAK

BORROKEN IZAERA

Gatazka baten aurrean, negoziazioaren bitartez bi aldeek puntu komunak era ditzakete, edo konfrontazioaren bitartez alde bakoitza bestea menperatzen saiatu, edo behintzat eragin sakona sortzen ahalegindu. Gatazka baten aurrean subjektu batek konfrontazioa hautatzean, borrokak sortzen dira.

Borroka bakoitzak bere espazio eta denbora propioa izango du bai ala bai, borroka bakoitzak gatazka zehatz batean du oinarria eta. Bere garapen geografikoa eta iraupena denboran zehar borroka aurrera eramaten duten subjektuek finkatua izango da: pertsonok egiten dugu historia. Era berean, borroka hori sorrarazi duen injustiziaren erantzuleen jazarpenak eta indarrak borrokaren garapena baldintzatuko du, noski. Horrela, nahiz eta borroka bakoitzak bere forma eta itxura izan, borroka guztiek elementuak partekatzen dituzte, eta hauen artean kokatzen da borroken logika, borroken garapena kontuan hartzeko oinarrizko kontzeptu bat.

Borroka orok bere baitan barneratzen du konfrontazioaren beharra, borrokatzea konfrontazioaren adierazpena baita. Borroken logikaren bitartez, etsaiarekiko harremana zehazten da: etsaia suntsitzeko helburua izan ala ez. Logika bat ala beste praktikaketeak etsaiarekiko konfrontazioaren hedapen eta garapen ezberdina eragingo du.

BORROKA PARTZIALAK

Gatazka baten aurrean konfrontazioa burututa, arazoaren sortzailea deuseztatzeko helbururik ez duten borrokak borroka partzial gisa definitzen dira, hau da, borroka logika honetan arazo edo



injustiarekin amaitzeko ez da zertan etsaiarekin amaitu behar. Partziala izateak ez dio inondik inora zilegitasunik kentzen borrokari, modu propioan garatzen da borroka, besterik ez. Borroka logika honen helburua arazo eta injustizia zehatzak lantzea da, edota etsaiari momentuko konfrontazioa helaraztea.

Adibide fiktizio bat ipintzearen, demagun zentral nuklear bat eraikitzea aurreikusten duela Ebro ibaiaren ertzean Nafarroako Gobernuak, bertako jauntxoek eta enpresarien interesek erantzunez.

Milaka eta milaka herritar zentral nuklearraren aurka mobilizatuko lirateke, eragile ugariaren parte hartzearekin batera. Arazoaren sortzailea enpresarien interesak direla jakinda ere, borrokaren helburua zentrala geldiaraztea litzateke, ez enpresariak suntsitzea. Zentralaren plana zapuztuta borroka amaitutzat emango litzateke.

Logika partziala ilustratzeko asmatutako adibide hau Euskal Herrian bizi izan diren eta egongo diren hamaika borroken isla da, borroka partzialen eredia, alegia,

borroka hauek maila lokalekoak zein nazionalekoak izan daitezkeelarik.

BORROKA INTEGRALAK

Gatazka baten garapenean, etsaia etsai gisa identifikatu eta injustiziarekin amaitzeko hau deuseztatzea edo lurraldetik kanporatzea ezinbestekoak diren borroka integralak dira. Bertan etsaiarekiko harremana epe luzera landu beharra dago, helburua ez delako hemen eta orain etsaiari min egitea, momenturen batean (agian aurreikusi ezin daitekeena) etsaia suntsitzea baizik.

Adibide bat ipintzearen, Vietnamdarrek frantziar estatuaren kolonizazioaren aurrean borroka integrala garatu zuten, erdibideko aukerarik ez zegoen eta, hots, kolonizazioak eragindako injustizien amaiera etsaia deuseztatuz edo lurraldetik kanporatuz lortu zezaketen soilik. Era berean, esplotazio kapitalistarekin behin betiko amaitzeko, burgesekin amaitu beharra dago, bitartean langileon lan-indarra esplotatzen jarraituko baitute.

BORROKA MOTAK

Edozein borrokaren logikatik hara- tago, borroken itxuraren edo formaren arabera sailkapena burutu daiteke. Borroka mota desberdinen arteko ezberdintasunak eta elkarloturak identifikatzearen, artikulu honetan, alde batetik, borroken logika izan dugu ardatz, eta, bestetik, borroken hedapen geografikoaren eta lan- keta esparruaren arabera sailkatu ditugu.

BORROKA LOKALAK

Borroka lokalak oso testuinguru zehatzean garatzen dira, udalerrri edo eskualde mailan, oro har, problematikak argi eta garbi definituz eta mugatuz: zein den arazoa eta noraino garatzen den, alegia. Espazioan eta denboran mugatuak izaten dira, arazo edo injustizia zehatza gainditzearekin

batera amaituz edo porrota jasanda.

“Borroka lokalak bizilagunen lehen mobilizazio esparruak izan ohi dira, bai gazteen kasuan zein helduen kasuan, zuzenean eragiten dieten arazoak izanik sarri mobilizazioaren hauspoa.”

Borroka lokalak bizilagunen lehen mobilizazio esparruak izan ohi dira, bai gazteen kasuan zein helduen kasuan, zuzenean eragiten dieten arazoak izanik sarri mobilizazioaren hauspoa. Politizazio papera ere jokatzen dute pertsona askorengan, hurbiletik eragiten dieten arazo bat dela medio, mundua injustiziez beteta dagoela barneratzen dute eta.

Borroka lokalak hizpide dituzten eragile eta mugimenduetan harreman informalak gailentzen dira. Harreman informaletan ez da aurretik zehaztutako irizpiderik jarraitzen eguneroko funtzionamenduan: elkartzea, erabakiak hartu, arduren banaketa, taktika eta estrategiaren zehaztapenean... Lan egiteko modu honek gertutasuna adierazi eta pertsona berriak erakartzea dakar, subjektu politikoaren funtzionamenduan bertako kideen arteko gaizki- ulertuak eta tira-birak ahalbidetzen dituen aldi berean. Auzo, herri zein eskualde mailan borroka zehatzak aurrera eramateko orduan, eragileak anitzak izanda konpromiso maila ugari eta partaide profil desberdinak batzen dira bertan. Borroka lokalen adibide dira tokian tokiko erraustegien aurkako borroka, esaterako.

BORROKA SEKTORIALAK

Borroka sektorialetan jatorri bereko arazo ugari batera lantzen dira, oinarrian partekatzen duten injustizia mahaigaineratuz. Espazio eta denbora zabalagoan garatzen dira borroka hauek, oro har, nazio

mailan antolatutako eragileen bitartez garatzen baitira borroka sektorialak.

Borroka sektorialen hedapena mantentzeko antolaketa mailan sakondu beharra dago, adibidez, partaideen zereginak zehaztuz, landuko diren borroka aurretik hautatuz... Funtzionamendu mota honek ez du zertan aurretik esperientzia militantea izatea eskatzen, baina esperientziadun perfila gehiago egokitzen da borroka mota honetan: begirada epe luzera, barne-harremanen kudeaketari garrantzia ematea, eztabaidak garatu eta erabakiak hartzeko prozedimenduak gauzatu... Hau da, eragile hauek harreman formalak zehaztea ohikoa da, egituratze maila denboran zehar operatiboa mantentzeko eta hedatzeko helburuarekin. Borroka sektorial gisa borroka ekologista aipatu daiteke, bertan denboran zehar mantentzen diren eragileak kokatzen direlarik.

KLASE ETA NAZIO ASKAPEN BORROKA

Aipatuko dugun azkenengo borroka mota klase eta nazio askapen borroka da. Bere hedapena nazio mailakoa da, aldi berean, muga horietatik harago beste eragile iraultzaileekin harremana mantenduz. Euskal Herriaren kasuan, inguruko gainontzeko nazio zapalduetan bezala, iraultzaile gisa aldi berean jorratu behar dira nazio askapena eta klase askapena, zapalketarik gabeko mundu baten noranzkoan. Euskal Herria nazionalki zanpatu eta militarki okupatzen duten bi estatuek ez dute bolondreski zapalketa amaituko, Euskal Herriko langilearen esplotazioa bermatzeko legedia eta indarkeria ahalbidetzen duten bitartean.

Hortaz, borroka honen jatorria errotik gainditzeko, etsaia deuseztatzea ezinbesteko baldintza da, epe luzerako begirada, antolaketa eta borroka ereduak praktikan ipini behar direlarik, bai ala bai.

Esparru honetan are gehiago sakondu beharra dago antolaketa maila. Munduan zehar belaunaldi ugari parametro iraultzaileetan antolatu eta praktika iraultzailea aurrera eramanda ere, ez dute borroka iraultzailea muturreraino eramateko aukerarik izan, etsaia oso esna dago eta. Hortaz, askapen borroka noizbait, belaunaldiren batek iraultza gauzatzeko aukera izan dezan aurrealdintzak sortzean eta hedatzean datza.

BORROKEN ARTEKO ELKARLOTURAK

Aurreko atalean aipatutako borroka motak sailkatzeko modu ugari egonda ere, bakoitzaren izaerari so eginik logika partziala ala logika integrala aurki dezakegu, borroka mota edozein izanik. Borroka zehatz bakoitza aztertuz, etsaiarekin konfrontazioa mugatua izango den ala konfrontazioa etsaia deuseztatzen bideratua egongo den antzeman daiteke.

Momentuko arazoei erantzuteko, logika partziala erabilgarria da, era

kategorikoan etsaiarekin akabatzen soilik bideratutako egitasmoek, bere testuingurutik eta herritarrengatik aldentuta, inmobilizazioa dute etorkizun bakarra eta. Euskal Herri Langileak hamai-ka motatako arazoak jasaten ditu esparru askotan, handikeriekin konpondu ezin daitezkeenak, hau da, hemen eta orain landu behar diren arazoak. Hortaz, Euskal Herri Langilearen gero eta sektore zabalagoak politizatze eta mobilizatze funtsezkoa da eragiten dieten arazoak eta injustiziak lantzea, borroka lokal zein sektorialak bultzatu eta babestuz.

“garaipen partzialak, une batekoak edo taktikoak erdiesteko gaitasuna besterik ez dute bere baitan”

Dena den, aurretik ikusi bezala, logika partzial baten pean aurrera eramaten diren borrokek ez dute borroka horiek berak piztu dituen arazoia etorkizunean berriz ere sortua ez dela bermatzeko gaitasunik. Hau da, garaipen partzialak,

une batekoak edo taktikoak erdiesteko gaitasuna besterik ez dute bere baitan, arazoaren munita jo ordez arazoan bertan gelditzen baitira. Beraz, benetako aterabidea eskaini diezaien bakarra hauek logika integrala duen proiektu politiko batean txertatzea da. Izan ere, borroka ezberdinak barnebiltzen dituen praktika politiko integrala garatzean, izaera lokal zein sektorialeko borrokek logika partziala galtzen dute, beraien azken egitasmoa errotik aldatua izan delako. Aurretik arazo konkretu bat modu isolatuan desagerraraztea planteatzen bazuten, orain horren desagerrarazpena etsaiaren deuseztapenera bideratuta planteatzen baitute. Ondorioz, nahiz eta arazo zehatzak konpondu, etsaiak bizirik dirauen bitartean, soldatapeko esplotazioa eta nazio zapalketa mantendu eta biharamunean injustizia berri bat jasango du herri langileak, horren aurrean etsaiaren kontra logika integrala praktikan ipintzen duen klase eta nazio askapen borroka garatzea ezinbestekoa bilakatzen delarik.





KLASE ERAIKUNTZA NAZIONALAREN LEHEN ZERTZELADAK

Klase gatazka etsaien arteko gudan datza, kapitalismoaren gaindipenarekin eta klaseen desagertzearekin bukatuko dena. Euskal Herri Langilearen Alternatibak zehaztutako helburu estrategikoak lortzeko, derrigorrezkoa da etsaiak suntsitzearekin batera Alternatiba Iraultzailea eratztea, Euskal Langileri Iraultzaileak botere politikoa lortzerako bidean.

Bide horretan konfrontazioa beharrezko baldintza da, klase gatazkan sakondu eta parametro politikoetan aurrerapausoak ematerako orduan. Hori dela eta, JARDUN – Euskal Herri Langilearen Alternatiba konfrontazio ziklo berri bat lortzera bideratutako tresna gisa ulertu beharra dago, bere estrategiak eta jardun politikoak konfrontazio hori sustatzea izan behar duelarik helburu. Perspektiba horretatik, borroka esparru ezberdinetan diharduten antolakunde sektorialen bitartez, hauek estrategia eta norabide berean elkarlanean arituta izaera integraleko alternatiba iraultzailea osatuz joan behar da JARDUN. Hori dela eta, Alternatiba Iraultzailearen gaitasuna eta mugak berau osatzen duten antolakuntza marko ezberdinen izaera eta lan esparruagatik ezaugarrituta egongo dira.

Bide horretatik, unean une indarrean duen estrategiatik harago, JARDUN-ek gai izan behar du Euskal Herri Langileak pairatzen duen problematika eta zapalkuntzaren ezaugarriak identifikatu eta

lehenengo teorizazio bat egiteko, prozesu iraultzailean sakontzeko abaguneak identifikatu eta lantzeko aukera izateko. Klase Eraikuntza Nazionalaz aritzerakoan, kontrabotere parametroan dauden Herri Erakundeak abiarazteari egiten zaio erreferentzia. Hauek Euskal Herri Langilearen eskura egon behar duten lanabesak izan behar dira, Euskal Langileri Iraultzaile gisa antolatu gabe prozesu iraultzaileari sostengua emateko edo, beste era batera esanda, klase gatazkan aurrerapausoak emateko.

Hortaz, JARDUN-etik harago doan kontraboterea eratu behar da Herri Erakundeen bitartez. Kontrabotere hau Alternatiba Iraultzailearen unean uneko egoeraren eta indarren arabera eraikiz joan behar da, bere estrategiaren baitako jardun politikoaren garapenarekin sortutako egoerarengatik eta lortutako emaitzengatik definituz joango delarik. Etsaiarekin harremantzean Euskal estatu independente eta sozialistarako bidean beharrezkoa den kontraboterearen eraikuntzarako Herri Erakundeen eraketa funtsezko elementua suertatzen da. Azken finean, edozein gatazka lurraldearen kontrol efektiboaren arabera garatzen da hein handi batean, eta Herri Erakundeak kontrol efektibo horren haziak izango dira, Euskal estatu independente eta sozialistaren haziak, hain zuzen ere.

Gutziz funtsezkoa da Klase Eraikuntza Nazionala iparrorratz iraultzaile gisa mahaigaineratzea. Izan ere, gaur egun, erreformismoak "gehiengo soziala" bezalako terminoen bitartez, klase gatazka eta zapalkuntza nazionala difuminatzen ditu. Sistema kapitalistak baimentzen dituen lan egiteko moduak, antolaketa ereduak eta ideologiak sustatzen ditu, epe motzeko begirada posibilistarekin batera eta, beraz, zapalkuntzekin amaitzeko bide gutziz antzua da erreformismoa.

"Gehiengo sozialen" teoriaren aurrean, gogoratu beharra dago boterearen ezarpena ez dagoela soilik gehiengo sozialari lotuta, boterea ezartzeko lanabes egokiak eta ahalmen operatiboa behar baitira. Helburu estrategikoak erdiesteko kontrabotere iraultzailea garatzen hastea da gakoa, historiak berak erakusten baitu nola kapitalak eragile iraultzaile zintzoei edozein bide parlamentario ixten dien indarkeria baliatuz.

Estrategien arteko ezberdintasunekin jarraituz, herri mugimenduari iraultza antolatzeko papera esleitzen dion, hau da, subjektu iraultzaile gisa kokatzen duen korronea ere aurkitzen da. Hala ere, herri mugimendua subjektua ez den heinean, ezin du praktikan paper hori bete. Subjektu batek bere buruaren kontzientzia du eta horren arabera jokatu du. Bestalde, herri mugimendua sare zabal eta plurala da, ez diona, inolaz ere, estrategia politiko

bakar bati so egiten, eragile mota asko aurkitzen baitira bertan, hamaika lan esparru, lan egiteko modu eta irakurketa dituztenak. Gainera, herri mugimendua subjektu iraultzaile gisa definitzeko, herri mugimendua zer den eta zer ez den zehaztu beharko litzateke eta inor ez da nor hori esateko. Dena den, honekin ez da herri mugimendua gutxietsi nahi. Bere izaera anitza eta horrek dakartzan ondorioak azpimarratu nahi dira, besterik ez.

"Klase Eraikuntza Nazionala Euskal Herri Langileak estatu espainol eta estatu frantsesaren legalitatetik kanpo bere instituzio iraultzaile propioak eratzean datza"

Askapen borrokan, etsaia argi eta garbi identifikatuta dagoenean, gudu-zelaian estrategia bati erantzun behar zaio, gure indarrak neurtu, etsaiarenak neurtu, gudu-zelaia eta ingurua aztertu, guzti honen arabera strategiapean jarduteko xedearekin. Ondorioz, praktikan subjektu politiko osotu batek soilik gara dezake konfrontazioa.

Laburbilduz, Klase Eraikuntza Nazionala Euskal Herri Langileak estatu espainol eta estatu frantsesaren legalitatetik kanpo bere instituzio iraultzaile propioak eratzean datza, Euskal estatu independente eta sozialistaren hazi gisa.



·Abenduaren 4a, Donostia



2020ko abuztuaren 15ean aurkeztu zenetik, urte eta erdi pasa da. Tarte horretan JARKI antolakunde iraultzailea parte den Alternatiba Iraultzaileak era jarraian lanketa ezberdinak burutu ditu, osotzen zihoan bitartean. JARDUN – Euskal Herri Langilearen Alternatibaren Erabakigune Nazionalarekin, JARDUN-en maila nazionaleko koordinazio markoarekin, mintzatu gara.

1. Zer balorazio egiten duzue gaur egungo testuinguru sozial eta politikoaz?

Hasteko, ulertu behar dugu Euskal Herrian prozesu iraultzailea muturrera eramane behar duen subjektua oraindik ere eratze prozesuan dagoela. Hau osatzerako orduan aintzakotzat hartu beharreko egungo Euskal Herriko testuinguru sozialeko klabeak honakoak direla ulertzen du JARDUN Koordinadorak.

Hasteko, etsaiak, hau da, Espainiako eta Frantziako estatuak eta beren eskutik doan euskal burgesia gai izan dira Euskal Herri Langilearen potentzialtasun iraultzailea

desaktibatzen, jazarpenaren, mehatxuen nahiz ondo errotutako beldurraren kulturaren sustapenez. Honek, erreformismora daramaten bideen agerpena eta onarpena ekarri ditu. Gainera, egun etsaiaren diskurtso eta ideologia zapaltzaileak dira nagusi, Euskal Herri Langileak hau zalantzan ez jartzeaz ez ezik barneratu dituen punturaino. Era berean, une honetan Euskal Herriko langileria otzantasun puntu batean aurkitzen da. Hasteko, mobilizatorako ohitura falta aintzakotzat hartu beharreko

“Euskal Herrian prozesu iraultzailea muturrera eramane behar duen subjektua oraindik ere eratze prozesuan dagoela.”

faktore bilakatzen ari da, eta honek inposatutako errealitatearen aurreko jarrera otzana hedatzea eta errepresio forma berriak naturaltasunez barneratzea ahalbidetu du. Mobilizatorako ohitura falta hau Euskal Herri

Langilea murgilduta dagoen desmobilizazio egoera orokorren logikan bakarrik uler dezakegu, protestarako eta mobilizatorako joera minimoa dagoelarik egun.

Horrekin batera, kontuan hartu behar da jasaten ari garen krisi ekonomiko-politiko eta soziala. Pandemiaren existentziak eta honek eragindako ondorioek, bidean zegoen krisia azkartu dute. Honek bi ondorio larri ekarri dizkio Euskal Herri Langileari. Batetik, krisi sanitarioaren aitzakiapean aurrera eramandako kaleratze guztiak, zerbitzu publikoetan (hezkuntzan, osasungintzan...) ematen ari den kolapsoa eta hauen pribatizazioa, lan eta bizi baldintzen kaskartze eta prekarizazioa... Eta bestetik, egoera guzti honek eztanda egin ez dezan, burgesiak langileei antolatzen beharrezkoak zaizkien tresnak desagerrarazi ditu. Honetarako erabili dituzten tresnak izan dira, batik bat, kontrolerako mekanismo ezberdinak, beldurraren kulturaren sakontzea edo beraien indar

errepresiboak kaleak hartzera ateratzea. Honek agerian utzi du agente politiko iraultzaile baten beharra. Egoera honen aurrean, bakoitza bere bidetik edo bakoitza berean borrokatzen ikusi dugu, inongo batasunik egon ez den bitartean. Horregatik, egoera honek izaera integraleko proiektu iraultzaile baten beharra azalarazi du, Euskal Herri Langileak pairatzen ari den egoera lazgarriari aterabide erreala eta iraultzaile bat emango dion proiektu bat, JARDUN, hain zuzen ere.

Bukatzeko, prozesu iraultzailea gorpuztu eta aurrera eramateko tresna eraginkorren falta dago Euskal Herrian, Euskal Herri Langilearentzat ez dagoelarik erreferente gisa aritu daitekeen subjektu iraultzailerik.

2. Zer balorazio egiten duzue aurreko kurtsu politikoaz?

Koordinadorak balorazio gazi-goza egiten du aurreko kurtsu politikoaz. Alde batetik, ulertu beharra dago gaur egun koordinadora osatze prozesuan murgilduta dagoenez gero, honetan sakontzeko aurrerapausoak eman direla. Hala ere, osaketa prozesu hau eta koordinadoraren praktika politikoak zein aurrera eramaten dituen dinamikak, Covid-19ren ondorioz Espainiako eta Frantziako estatuak, Euskal Herriko langileria eskubide zibil eta politikoak murrizteaz gain, euren nagusitasuna eta zapalkuntza areagotzeko abiatutako ez-ohiko

“bakoitza bere bidetik edo bakoitza berean borrokatzen ikusi dugu, inongo batasunik egon ez den bitartean.”

neurriengatik baldintzatua izan da. Hala ere, aurreko galderan azaldu den bezala, langileria zati handi batek neurri hauek auzitan ez jartzeaz ez ezik beharrezkotzat jo izan ditu osasunaren izenean. Honek osasunera bideratutako neurriez gain, Alternatiba Iraultza

learen gorpuztea oztopatu duten izaera politikoko hainbat neurriren eta murrizketen normalizazioa eta onarpena ekarri ditu.

3. Zeintzuk dira 2022. urteko erronkak?

Esan bezala, JARDUN-ek osatze eta egituratze prozesuan burubelarri dihardu, Euskal Herri Langileak prozesu iraultzailea aurrera eramane behar duen subjektu iraultzailea osatu, eta honi beharrezkoak zaizkion tresnak eta antolakuntza markoak eskaintzeko asmo irmoarekin. Gauzak horrela, hurrengo urteko erronkak JARDUN-en osatze eta hastapenekin lotura hertsia daukate.

“pasa den urtean bai errepresioari aurre egiteko, bai klase feminismoaren lanketa burutzeko koordinadorak osatutako ekimenek euren sorrera prozesua bukatu eta JARDUN-en baitako antolakundeak bilakatzea da helburua.”

Lehenengo helburua, JARDUN-en eta bere antolakuntza marko ezberdinen osaketa eta egituratzea izango da. Izan ere, Euskal Herri Langileak beharrezkoak dituen tresnak eskaintzeko beharrezkoa izango da jendea proiektura batu eta bertan antolatzen hastea. Bide honetatik, pasa den urtean bai errepresioari aurre egiteko, bai klase feminismoaren lanketa burutzeko koordinadorak osatutako ekimenek euren sorrera prozesua bukatu eta JARDUN-en baitako antolakundeak bilakatzea da helburua. Honekin batera, JARDUN osatzen duten antolakuntza marko ezberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea da koordinadoraren lehentasunetako bat. Gainera, Euskal Herri Langilearen begietara koordinadoraren erreferentzialtasuna landu beharra dago, eta hau

eguneroko maila lokaleko lanketa militante jarraituaren bitartez bakarrik lor daitekeela ulertzen du JARDUN-ek.

Bukatzeko, Alternatiba Iraultzaileak beharrezkoa du bere proiektu politikoaren sozializazioa eta hau Euskal Herri Langileari azaldu eta honen baitan zabaltzea.

4. Independentzia eta sozialismoa gaitutako binomioa da?

Ezin dugu esan independentzia eta sozialismoa gaitutako binomioa denik ez dugulako binomio gisa ulertzen, hau da, Euskal Herrian askapen nazionala eta askapen soziala elkarren eskutik doaz eta klase ikuspuntutik ezin dugu, inolaz ere, bata besterengandik banatuta ulertu. Izan ere, Euskal Herrian ematen den klase gatazkaren baitako ondorio da Euskal Herriko Langileriak pairatzen duen nazio zapalketa. Euskal Herriko burgesiak nazio zapalketan nahiz Euskal Herriko langileriak pairatzen dituen zapalketa guztien sostenguan paper aktiboa jokatzen duenez gero, ezin dugu ulertu nazio askapena hauen eskutik ematerik. Honek izaera interklasistako prozesu independentista bat jarriko bailuke martxan, estatu independente hau euskal burgesiaren esku egotea bermatuz eta Euskal Herriko langileriak pairatzen duen azpiraketari jarraipena emanez.

“Euskal Herrian askapen nazionala eta askapen soziala elkarren eskutik doaz eta klase ikuspuntutik ezin dugu, inolaz ere, bata besterengandik banatuta ulertu.”

Hori dela eta, JARDUN-ek Euskal Herriko langileriak pairatzen duen nazio zapalketari aurre egiteko orduan bide bakarra independentzia dela ulertzen duen arren, honen beharrezko erantzuna eman behar dien estatu indepen-

dente baten sorreraren bitartez ezin dugu ulertu, inolaz ere, estatu honen gauzapena parametro interklasistetan. Hau da, lehenengo independentzia eta gero sozialismoa eta, are gutxiago, langile klasearen botere politikoren eskuratzean eta prozesu sozialista baten gauzapenaren baitan ez bada. Euskal Herria nazio gisa askatzeko, soilik sozialismoaren eskutik datorren prozesu iraultzaile baten bitartez izan ahalko da.

5. Zer ulertzen du JARDUN-ek herri mugimendu gisa? Herri mugimenduak JARDUN-en parte har dezake?

JARDUN-ek herri mugimendua tokian tokiko borroka partzialen adierazpen gisa ulertzen du, definizioz, aniztasuna eta askotan espontaneotasuna zein militatze-ko eredu informala dituztelarik oinarri. Hori dela eta, aniztasun honek Euskal Herrian askotarikoak diren eta alor ezberdinetan diharduten herri mugimenduko eragile asko egotea dakar.

Gauzak horrela, JARDUN-ek errealitate lokalari eta Euskal Herri Langileak pairatzen dituen problematikei erantzuteko asmoa duenez gero, herri mugimenduekin hartu emana eta maila taktikoko

lankidetzaz izatea planteatu dezake, kasu askotan koordinadorako militanteak herri mugimenduaren parte direlarik. Betiere ulertuz herri mugimendua ez dela Alternatiba Iraultzailearen parte, JARDUN-en proiektu politikoren parte eta, beraz, ezin dela JARDUN-en helburua izan herri mugimendua kontrolatu edota hau bere estrategia zein koordinadoraren baitan barneratzea. Izan ere, hau herri mugimenduaren izaeraren kontra joango litzateke, eta Alternatiba Iraultzailearen baitako bestelako antolakuntza markoak sorraraziko balitu ere, ezingo genituzke inolaz ere herri mugimendu gisa ulertu, JARDUN-eko antolakuntza marko gisa baizik.

6. Zer antolakunde tipologiak parte har dezake JARDUN-en?

JARDUN-en beren funtzionamendua ondo definituta eta araututa duten eta zentralismo demokratikoaren bidez funtzionatzen duten antolakundeek har dezakete parte. Gauzak horrela, koordinadorak atea ixten die mugimendu gisa definitzen diren antolakuntza markoei, honen indefinizioari eta funtzionamenduari dagokienez sor daitezkeen botere harremanak

eta berau osatzen duten kideen erabaki kolektiboaren kontra joateko eskaintzen dituzten aukerak direla eta.

7. Zergatik uste duzue beharrezkoa dela JARDUN-en konformazioa koordinadora gisa?

JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatibak koordinadora izaera edukitzea halabeharrezko baldintza dela deritzogu, Alternatiba Iraultzaileari izaera integrala emate aldera. Izan ere, JARDUN-en aburuz, antolakunde bakar batek ezin du Euskal Herrian prozesu iraultzailea abiarazterako orduan borroka guztiak bere gain hartu, hau da, eraginkorra izan ahal izateko, JARDUN-ek borroka bakoitza antolakuntza marko espezifikoengatik landua izan behar dela deritzo.

Borroka sektorialak hauek landuko dituzten antolakuntza marko espezifikoengatik landuak izan behar dira. Baina, izaera sektorialeko antolakunde hauen koordinaziotik eta lankidetzatik eratorria izan behar da Alternatiba Iraultzailea. Hauek euren esperientzia eta errealitatea eransteko aukera baitaukate koordinadoraren bitartez, eta denon arteko adostasun eta





elkarlanaren bitarteko ibilbide eta estrategia amankomuna markatu behar du koordinadora iraultzaileak.

Horrez gain, koordinadoraren izaera eta gaitasuna beratu osatzen duten izaera sektorialeko antolakundeek definituak izango dira. Bestela esanda, borroka esparru ezberdinak lantzeko zenbat eta antolakunde gehiago osatu, orduan eta gehiago sakonduko du Alternatiba Iraultzaileak izaera integraleko proiektu politikoa Euskal Herri Langileari eskaintzerako orduan.

8. Zer ulertzen du JARDUN-ek Euskal Herri Langile gisa?

JARDUN-entzat Euskal Herri Langilea Euskal Herrian bizi den eta bere lan indarra bertan saltzen duen orok osatua da, hau da, Euskal Herri Langilea Euskal Herriko langileriak osatzen du. Hori dela eta, bere praktika politikoan Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapal-keta gainditzeko eta honen interesak babestea izan behar ditu oinarritzat JARDUN-ek. Izan ere, Euskal Herri Langilea klase parametroetan zapaldua denez gero, potentzialtasun osoa dauka iraultza burutzeko, eta potentzialtasun honen garapena eta aktibazioa sustatzea izan behar da JARDUN-en helburua, gizartea iraultzeko ahalmena eta nahia duen subjektu iraultzailea osatzerako bidean.

Euskal Herriaren kasuan, JARDUN-ek subjektu iraultzailea

Euskal Herriaren askatasunaren eta klase askapenaren alde antolatzen diren bertako langileek osatua izan behar dela uste du. Izan ere, bakarrik Euskal Herriko langileriaren sektoreak izango dira bertan prozesu iraultzailea bururaino eramateko kapazak, prozesu horretan JARDUN honen gauzape nerako tresna izan behar delarik. Hots, subjektu iraultzaileaz ari garenean, Euskal Langileri Iraultzaileaz ari gara, Euskal Herrian beren lan indarra saldu eta askapen nazionalaren eta sozialaren alde antolatzen direnek osatua.

Argi ikus daitekeenez, Euskal Herri Langileaz ari garenean ez gara, inolaz ere, izaera interklasistako terminoaz ari. Termino politikoek ere euren jatorrizko planteamendutik harago bilakaera bat edukitzen dute, unean uneko testuinguru politiko eta indarrean dauden ekintza materialen pean. Egun, Euskal Herri Langilearen terminoa klase ikuspuntutik bakarrik uler daitekeela deritzo JARDUN-ek, bera azken finean Euskal Herriko subjektu iraultzaileentzako proposamen organizati-boa besterik ez delarik.

9. ENAM-en estrategia partekatzen duzue?

Euskal Herria urte luzez izaera politiko militarreko estrategia baten baitako gatazka batean murgilduta egon da, ziklo politiko horren itxierak honetan murgildutako eragile ezberdinen estrategia eta ideologia birkokatzea eragin duelarik.

Historikoki ENAM gisa ezaguna izan den mugimendua, Ezker Abertzalearekin identifikatzen dena, egungo bere parametro estrategikoetan bere estrategia instituzionalismora mugatzen duela deritzo JARDUN-ek. Gainera, askotan esan den bezala, JARDUN ez da Ezker Abertzale gisa identifikatzen, ezinezkoa baitaio gaur egun Ezker Abertzaleak aurrera daraman estrategiarekin bat egitea. Instituzionalismoak erreformismoa oinarri izateaz gain, prozesu iraultzaileari ateak itxi eta Espainiako eta

Frantziako estatuen estrategia instituzional bat zilegitzea ekar dezake bakarrik.

10. Zein da JARDUN-en estrategia?

JARDUN-en estrategia Euskal Herri Langileari prozesu iraultzailean abian jarri eta honetan murgilduta dagoenean, honetan sakontzeko tresnak eskaintzean oinarritzen da. Horretarako, Euskal Herri Langileak bere antolakuntza marko propioak garatzeko gaitasuna izan behar duela deritzo Alternatiba Iraultzaileak, estatuek inposatutako muga eta instituzioetatik haratago. Hori dela eta, JARDUN-ek Klase Eraikuntza Nazionalan oinarritutako estrategiak garatzeko asmoa dauka. Klase Eraikuntza Nazionalak Euskal Herrian prozesu iraultzailearen baitan kontraboterearen osaketa graduala izan behar du oinarri. Alde batetik, etsaiaren botere gunea higitzeko eta, beste aldetik, langileriak prozesu iraultzailearen baitako borrokaren baitan lortutako emaitzak bertan edota ziurtatzeko gai izan behar da, etorkizuneko Euskal estatu independente eta sozialistaren lehenengo haziak landatzeko. Hala ere, une honetan estrategia honi obeditzeko JARDUN osaketa prozesu batean murgilduta dago, bere indar gehienak honetara bideratzen ari delarik. Azken finean, kapitalak eta burgesiak markatutako joko zelaitik gaindi langileriak markatutako joko zelaia inposatzeko asmoa dauka JARDUN-ek, honetan oinarrituko delarik bere praktika politikoa zein martxan jarritako edo planteatutako ekimen oro.



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com

Jarki 

INDEPENDENTZIA · SOZIALISMOA